

Intxaurreondo

Haur gorren gurasoen elkarteak auzora etorriko da

Duela gutxi, eraikin bat egiten hasi ziren Mons eta Zarategi pasealekuen artean. Bertan, Arans Gui Gipuzkoako Haur Gorren Gurasoen Elkarteak izango du egoitza.

Lierni Ezeiza

Arans Gui duela 35 urte sortu zen, eta orduz geroztik, elkarteak bi egoitza izan ditu Donostian. Lehen urteetan, elkartekideak Aldapetako lokal batean elkartzen ziren. Duela 30 urtetik, Teresatarren eskola izandakoan



Hauxe izango da Arans Gui elkartearen egoitza, irudi birtualaren arabera.

egon dira, Frantzia pasealekuan. Teresatarrek 30 urterako utzi zieten eskola, eta epea aurten bukatuko da. Gipuzkoako Haur Gorren Gurasoen Elkarteak toki berean jarraitzeko ahalegina egin du, baina ez dute akordiorik lortu. Hortaz, beste leku bat aurkitu behar izan du. Azkenean, Eusko Jaurlaritzak lursail bat saldu die Intxaurreondon, egoitza berria egin dezaten. Lanoi aurre egin ahal izateko, Arans Guikoek zenbait erakunderen dirulaguntzak jaso dituzte. Jose Montero Arans Gui-ko lehendakariak adierazi digunez, "eraikin berria izango dugula kontuan harturik, ahalik eta teknika aurreratuenak jartzen saiatuko gara. Frantzia pasealekuan jarraitu izan bagenu, obra handia egin beharko genukeen".

Azpiegitura berria

Mons eta Zarategi pasealekuen artean egiten ari diren eraikinak hiru solairu izango ditu. Bestalde, eguzki plakak jartzeko asmoa dute, energia au-

rrezteko. Medikuen kontsultategia, aisialdi ekintzetarako gelak eta soinugabetutako aretoak izango dituzte egoitza berrian, besteak beste. Maiztasun hasieran hasi ziren eraikina egiten, eta hasieran, lanak urtebetean bukatzea aurreikusi zuten. Dena dela, eraikuntza arloko langileen greba dela eta, ez dago zehazterik noiz bukatuko duten Arans Gui-ren etxe berria.



Euskal Festa

Azken txanpan dugu Intxaurreondoko Gastronomia Astea Larumbatean, ekainak 5. Euskal Festa egingo da Justo Elizaran parkean, 09:00etan txahala erretzen hasiko dira, eta 11:00etan txerri boda antzeztuko dute. Jarrailan gastronomia azoka zabalduko dute, gazta lehaketa egingo da eta III. Sagarde Festa hasiko da. 21:00etan, herri afariaren txanda izango da. Afariarako txartelak Larrotxene Kultur etxean daude, 15.000etan. Afaldu ondoren, cavaren dantza egingo da. Azkenik, igandean 21:00etan, bukaera afaria egingo dute parkeko karpan eta bertan, Luis Bettonica gastronomia kazetari kataluniarra omenduko dute.

Hasieran, eskola

Gaur egun, 250 familia inguru dira Gipuzkoako Haur Gorren Gurasoen Elkarteko partaide. Arans Gui-ko Donostian du egoitza nagusia, baina Tolosan eta Bergaran ere elkargune baina du. Gurasoen elkarteak haur gorrei heziketa egokia emateko helburuz sortu zen. Hasieran, Arans Gui gorrentzako eskola zen. 80ko hamarkadaz geroztik, ordea, ume gorrek eskola arruntetan ikasteko aukera dute. Orduetik, haur txikiak errehabilitazioa egitera joaten dira Arans Gui-ren lokalera, eta zaharragoek eskolaz kanpoko ekintzak egiten dituzte bertan. Elkarteak bestelako zerbitzuak ere eskaintzen ditu; adibidez, gorrak ez izan arren, hitz egiteko arazoak dituzten haurrez ere arduratzen da elkarteak.

Maria Auxiliadoraren krosa

Igandean, ekainak 6, Maria Auxiliadora kastelearen krosa egingo da auzoan. Txikien, benjaminen, alebilen, infantilen eta beteranoen lasterketak izango dira 10.00etatik aurrera. Lasterketak Zarategi pasealekuan izango dira, eta izen-ematea doan da.

